

Irudiak, ikonoak eta Olinpiadak

Jakintza *light* baten nagusitzea deitoratzen zenuen, Juanjo, azken ttakunean. Arina eta batez ere sinplea, erabilgarria, errentagarria izan behar du gaurko jakintzak. Antzinaroko egipziarrek piramideen barnealdean margotutako irudien bitartez kontatzen zituzten kontatu nahi zituztenak eta, gaur ere, txinatarrek —agintariez ari naiz, noski— irudi soil batzuen bitartez kontatu digute beraien herrialde erraldoiaz kontatu nahi zigutena.

Joko Olinpikoek eskaintzen zieten eszenatoki mundiala ederki baliatu dute Txina berriaren kondaira (ala betiko Txinaren kondaira berria?) irudi single bezain ederrak uztartuz taularatzeko, uztai olinpikoak bailiran. Kaligrafia, inprenta, su artifizialak, astronautak, danborrada (Marco Polok ekarria Txinatik Donostiara, ala alderantziz ote?), eta horra, irudi horiekin nahikoa omen Txina berria ulertzeko. Falta zen gauza bakarra espagetiaren aipamena zen, horiek ere beraiek asmatua baitira. Baina behar bada ez zitzaizkien itxurosoegia irudituko estadio olinpikoa milaka espageti fluoreszentez apaintzea. A!, beste zerbait ere falta zen irudi katea limurtzaile horretan, xehetasun ezdeus bat, hauts ale ñimiño bat, Txina zahar-zaharraren historia luzea aintzat hartuz gero, baina halere... komunismoa. Maoren hilobitik aldarri itoak jalgi ziratekeen zeremonia famatuaren gau hartan. Baina horrela da. Ez dira gauzak sobera konplikatu behar, jendeari istorio sinpleak gustatzen zaizkio, eta ongi amaitzen direnak, aukeran. Izan ere, egipziarrek ere ez ziguten utzi margoturik piramideen eraikuntzaren azalpena —odoltsuegia, ziurrenik—, nahiago izan zuten gauza dotoreagoak uztea posteritaterako.

Olinpiaden aurrean deseroso sentitu naiz abuztu osoan. Alde batetik guztiz lotsagarria iruditu zaidalako mendebaldeko agintarien jokamoldea. Txinari presioa egiteko aukerarik bazegoen giza eskubideen errespetuaren alde, horixe zen aukera handia. Alferrikaldu da.



DANI BLANCO

Mr. Apalategi

Olasagerre

K. Agirre

Ondo dakigu Berlineko 1936ko jokoetan parte hartzeak ez zuela Hitlerren erregimena “normaltzen” lagundu. Aitzitik, nazioartean eta bere herritarren aurrean zilegitasun gehiago eman zion. Txinarekin ere hori bera gertatu da. Bestalde, nola uka ezin izan diodala eutsi kirol lehiaketa zenbait ikusteko tentazioari? Tortura txinatarra kirolzalearentzat.

Frantziako hedabideetan Olinpiaden kontrapuntua Dalai Lamaren inguruko polemika izan da. Dalai Lamak hamabi eguneko bisita egin du Frantzian, hain zuzen Joko Olinpikoek irauduten bi aste horietan. Eta, jakina, larru-bizitan eta zer egin ez zekiela utzi du frantses gobernuak. Sarkozy Pekinen, eta Dalai Lama... Parisen, ezin ministrok ez ziolarik harrera ofizialik egin nahi... Harik eta Carla Bruni bidali duten arte... Ikonoari ikono t'ardi.

Baina, eta hori da azken aldion ikasi dudana gauza interesgarrienetakoa, tibetar guztien izenean mintzo ei den Dalai Lama nor da benetan? Sorbonako irakasle espezialista bati sinetsi behar badiogu behintzat, Dalai Lamaren figura politiko-erlijiosoa mantxu dinastia mongoliarrrak —zeina Txinaren buru baitzen garai batean— sortu eta ezarri zuen indarrean. Hots, Dalai Lama erakunde heteronomo bat da tibetarrentzat. Eta antza, tibetarren gehiengoak ez dago ados nazioartean Dalai Lamak defenditzen duen tesi autonomistarekin. Tibetin independentziari aspaldi egin baitio uko Dalai Lamak. Azkenik, Dalai Lamak ustez ordezkatzen duen Tibet, egiazko Tibet geografikoaren adabaki bat baino ez omen da. Askoz zabala-

goa baita Tibet, izatez (hainbat zati ditu beste estatu batzuen menpe daudenak, edo burujabe direnak beste izen baten pean). Hor ere, sinplifikazioa nagusi, irudi edo ikonoak nahiago diskurtsoa baino, azalpena baino, ulermen historikoa baino.

Jakintza *light*a, bai, Juanjo. *Kung Fu panda* ikusi al duzu Katixa? ■

Olinpiaden aurrean deseroso sentitu naiz abuztu osoan.

Alde batetik guztiz lotsagarria iruditu zaidalako

mendebaldeko agintarien jokamoldea. Txinari

presioa egiteko aukerarik bazegoen giza eskubideen

errespetuaren alde, horixe zen aukera handia